


Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko abenduaren 6a

*



Ikerketaren harribitxia

■ Pedro Miguel Etxenike izabarrak Euskadi Ikerkuntza saria jaso zuen duela gutxi. Sari pozgarria izan da, baina ez du egonean gelditzeko asmorik, Eusko Jaurlaritzak eman dion saria lanean jarrai-

tzeko «akuilua» baita. Hainbat tokitan ikasten eta ikertzen ibili eta gero, EHUko Kimika katedradunak unibertsitatea, irakaskuntza, ikerkuntza eta euskara izan ditu mintzagai orriotan. ■

Mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



De usted egiten dizute eta maiz caballero bihurtzen zaituzte. Taxistek. Zer kalte egiten didan horrek galde lezake norbaitek. Deus gutxi, egia esan. Horregatik agian ez da bidezkoa hatza hain lotsagabe ateratzea. Barkatuko ahal dit tipoak arketipoa. Izan ere, Madrileko taxistak mila aurpegi izaten ditu: mediku izan daiteke Bilbon, nekazari Baztanen edo irakasle Iruñean. Gaurkoan taxista izanen da Madrilén.

Nik ezagutu dudak hori haserre egoten da, koleraturik munduarekin, planeta osoarekin, eta egunero identifikatzen ditu etsai berriak. Solaskiderik ez duenean bakarriketara jotzen du, edo irratia pizten du kirolaz informatzeko. Taxistak gorroto die arbitroei, mundu honetan ez baita justiziarik, eta lau ateko bere munduan sartzen den edonori kontatzeko prest egoten da: *nik aise konponduko nuke hori...* Eta ez da erraza jakitea zer den hori,

Madrileko taxista

dena baita edo izan baitaiteke hori. Bi egun aski omen litzuke, ikusiko omen lukete horiek nola egin behar diren gauzak... Egia dela hemen eta Txinan, ezerk eta inork ez duela isilaraziko, eta besoak mugitzen ditu, ispiluan zure aurpegia bilatzen duen bitartean. Taxistak, kanpotik begiratuta, kristalaren kontra joka ari den arraina dirudi.

Gaitza, ordea, ez da betiko. Salbatzaileak itxura anonimoa izaten du. Duda gutxiko bezero bat sartuko da egunen batean gure taxistaren autoan. Arreta haundiz entzunen du taxistaren erretolika, eta honek ezer ez sumatu arren, bere hitzak erabakiorrak izan daitezke, handik aurrera gauzak errotik aida litezke, bere bezeroa ez baita edozein, futbol klub bateko presidentea, ospe haundiko sukaldaria edo enpresaria da, eta honi ere garbi mintzatzea gustatzen zaio, gauza bakoitzari bere izena ematea, eta besteen alde lan

egiteko grina agertzen du. Enpresariak ez du herdoilik mingainean, aski garbi eta ozen mintzatzen da telebisiolan azaltzen denetan: *zoazte kalera eta galde jendeari zer pentsatzen duen...* Taxistak ukabilaz jotzen du bolantea: *hori duk arrazoial!*

Hala ta guztiz ere, laburra izaten da taxistaren poza. Bere oinazea zaharregia da, eta ez daki nondik dator kion. Gaueko txanda egokitzen zaionean mudatzen zaio apur bat aldartea. Oso bolumen apalean entzuten ditu itzalen munduko ejerzitoaren arrangurak, eta bera ere deitzeko tentatuta egoten da.

Alabaina, amada hori gaizki horniturik dago, gerra guztiak galtzen ditu, galerazia baitauka egun argiz ezer adieraztea; horregatik, egunsentiak dakarren derrota sumatzean, taxistak nekea gorde eta hortzak erakusten ditu: «Nora?», galdetzen dizu, edozertarako prest. Nik, beti, *de usted.*

GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Iruña: Black Crowes taldeak kontzertua eskainiko du igandean, hilak 8, gaueko 22:00etan, Anaitasuna kiroldegian.

Zubiri: Drindots taldeak kontzertua eskainiko du bihar, hilak 7, gaueko 01:00etik aurrera, Gau Txori aretoan.

Aras: Etxarriko abesbatzak kantaldia eskainiko du igandean, hilak 8, herriko elizan, eguerdiko 13:00etatik aurrera.

Iruña: Varsoviako Ganbara Orkestrak kontzertua eskainiko du hilaren 10ean, Gaiarre antzokian, Nafarroako Elkarte Filarmonikoaren eskutik.

ANTZERKIA

Ituren: Iruña Pequeño Teatrok *Jaberik gabeko zopa-ontzia* taularatuko du gaur, hilak 6, gaueko 20:00etatik aurrera, herriko pilotalekuan, musutruk.

Bera: Lamixine Bat Berako antzerki taldeak *Lilien lilura* taularatuko du igandean, hilak 8, arratsaldeko 18:00etan, herriko Kultur Etxean.

ERAKUSKETAK

Iruña: Max Klingeren argazkiak ikusgai izanen dira Zapateria kaleko aretoan, hilaren 15era arte.

Iruña: *Somen berria. Lausanako arte gordina* izeneko erakusketa izanen da ikusgai urtarrilean Nafarroako Museoan.

Barañain: Patxi Idoateren margolanak hilaren 13ra arte izanen dira ikusgai Alkerdi galerian (udaletxe atzealean). Aretoa astelehene ostiralera 19:00etatik 21:00etara izaten da zabalik.

IKASTAROAK

Tutera: Ingurugiroari buruzko ikastaroa antolatu du Gazte Kontseiluak Tuteran. Ikastaroa egiteko bi aukera izanen dira: hilaren 9tik 12ra, eta 16tik 19ra. Horretan parte hartzeko 2.000 pezeta (80 libera) ordaindu beharko dira. Izena emateko dei ezazue 23 48 19 telefonora.

Iruña: Urpean igeri egitea gustuko baduzu, dei ezazu 17 22 38 telefonora, eta izena eman ezazu aurki martxan jarriko duten ikastaroan parte hartzeko. Lortuko duzun titulua nazioartean baliagarria izanen da.

BESTELAKOAK

Azkaine: Manex Goienetxek *Euskal Herriko mendiaren historia* izeneko mintzaldia eskainiko du gaur, hilak 6, gaueko 21:00etan, Bil Tokin.

Zugarramurdi: Bertso-txiste afaria izanen da bihar, hilak 7, gaueko 21:00etan Azketa ostuan. Bertan izanen dira Unai Iturriaga, Jon Sarasua, Ugutz Robles eta Txomin Ezponda.

nafarkronika

Alberto Barandiaran


Zentzutasun handiagoa erakusketentzat

Dudarik gabe, Castillo de Mayako arte aretoaren irekiera berria izan da azken egunotako berri kultural garrantzitsuenak. 70eko eta 80ko hamarkadetak arte plastikoak ezagutarazteko oso lan garrantzitsua egin zuen Xabier Morrasen zuzendaritzapean, eta ordura arte ezagunak eta bazterrekoak ziren pintore, eskultore eta jarrerak ekarri zituen Iruñera horrela. Beherakada etorri zen gero, ez ur ez ardo aritu zelarik, eta bi urtez itxita egon ondoren, berriro hasi da azken 75 urte hauetako pintura eta eskultura nafarraren erakusketa eder batekin. Oso adierazgarria izan da bere ibilbidea. Euskal Herriko arte plastiko garaikideen garaia eztanda egin zuenean hazi, kokortu, eta heldutasuna ezagutu zuen. Belaunaldi oso garrantzitsuek eskegi zituzten lanak pareta horietan eta pintore eta eskultoreek izena hartu zuten, fama eta ospea. Baina iritsi zen gero 90eko hamarkada, «orok du balioa» esaldia famatu egin duena, eta joera berriek gauditu egin zituzten programatzailerak berak. Aretoak instalakuntzaz, material berriz eta gune konkretuak behar zituzten lanez bete ziren —ho-

rretarako erabat desegokiak izan arren—, kritikarien diskurtsoa kriptikoa egin zen, eta jendea atetik hasi zen lanak ikusten, lanok sortzen zioten harridura gero eta handiagoa zela. Bi hitzetan, hondarra finkatu gabe etorri zen marrea, eta hare asko eraman zuen.

Orduz geroztik, etengabeak izan dira garai berriei egokitzeko ahaleginak, eta batzuek are aurrerago egin dute jauzia: arte garaikideak, azken joerek, inoiz baino presentzia handiagoa izan dute hondarreko urteotan, baina apustuari bakarrik erakunde publikoek eutsi ahal izan diote, eta emaitzak, gutxienez, eztabaidatzeak dira —hor dago Carlos III erakustaretoaren gainbehera, kasurako—. Beste batzuek ezin izan dute eraman gero eta bisitari gutxiago izatea, eta atek itxi dituzte.

Amairuko Gaztelua karrikako aretoak burubide ekar liezaioke apur bat egoerari. Nafarroako Kutxa bezalako erakunde baten babesean egonda, pentsatzekoa da gutxiago erreparatuko diela model edo bakan batzuen interesei, eta gaur egun interesgarria den arte plastikoa paratuko duela. Beste erakustareto askok esker-tuko lukete.



asteko pertsonaiak



Miguel Sanz
Nafarroako presidentea

■ Corellako presidentea egurren tonaka banatu zuen Nafarroaren Egunean UPNk Tuteran egindako mitinean. Lehenik eta behin, EA eta EAJ kritikatu zituen, eta euren helburuak eta ETArekin berberak direla esan: «ETAk bi gauza nahi ditu, autodeterminazioa —hau da, independentzia—, eta Nafarroa Euskadin sartzea, eta nazionalista moderatuek gauza bera nahi dute». Ez ziren aipatzeke geratu Euskararen Legea, EITB, Nafarroa-EAE eta Lankidetzarako Hitzarmena. Presidente erreionalistaren hitzetan, «horiek guztiak Nafarroaren interesen aurkakoak dira». Bestalde, aurreko hiruko gobernuaren aurka jo zuen, Suitzako kontu korronteak gogora ekarritz.



Bernardo Atxaga
Idazlea

■ Bernardo Atxagak Sara izeneko gizona bere azken eleberria aurkeztu zuen atzo Iruñean, Pamiela argitaletxearen eskutik. Ez da *Gizona bere bakardadean* liburuarekin zabalduetako trilogiaren jarraipena, baizik eta Atxagak berak duela 16 urte idatzitako irratiko nobela batean oinarriturik idatzirik eleberria, lehen karlistadan kokaturiko kontakizuna hain zuzen ere. Lehendabizi gaztelaniaz idatzi du, eta gero euskaratu egin du. «Itzulpen guztietan bortxaketa bat dago, eta nik bortxaketa hori norberak egiten duenean zer gertatzen den ikusi nahi nuen. Azpian dagoen arazoa itzultzaile guztiek ezagutzen dute: zehaztasunarena», adierazi zuen.

ahaztu gabe!

EGUBERRIETAKO ZOZKETA



Iruña: Nafarroako hiriburuan Corte Inglesik ez badago ere, jakin badakigu Eguberria Corte Inglesera heldu dela jada, eta, beraz, jaiak gainean ditugula. Horiei begira, Eguberrietako saski erraldoi baten zozketa prestatu du Navarrerria auzoko jai batzordeak. Navarrerriako hainbat dendak, peñak, tabernak eta auzokidek, musutruk, orotara berrehun opari sartu dituzte saskian: 60 botila, 50 lata, urdaiazpikoa, lurrinak, turroia, tabakoa... Eguberriak burutu arte, auzoko denda eta tabernetan saski mardul horren zozketan parte hartzeko tiketak salgai izanen dira, 50 pezetaren (bi libera) truke. Jakina denez, Iruñeko Udalak aurtan ez die San Fermin Txikito jaiak dirulaguntzarik eman. Jaiak ospatu zirelarik, istiluak izan ziren Alde Zaharrean. Udalak horiek gaitzesteko eskatu zion elkarteari, eta elkar-teak horiekin zerikusirik ez zenez, gaitzespenik edota onespenik ez zuela eginen erantzun zuen. Udalaren erabakiak eragindako zorrak kitatzea izanen da, hain zuzen ere, saski erraldoiaren zozketaren helburua.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehene ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketarako.

Irati Irratia FM 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haur-errentzako saioa 12.30etan.

Iruñea

Alde Zaharreko dendek Iruñeko Ganbara Abesbatzaren konpaktua oparituko dute

Yanguas y Miranda kalean jarriko dute aurten Antoniutti Eguberri Azoka

Iruñeko Alde Zahar Merkatari Elkarteko kideek euren bezeroei Iruñeko Ganbara Abesbatzaren disko konpaktua egingo diete opari datozen Eguberrietan. Urbanizazio eta zaharberritze lanek bezerorik ez uxatzea izanen da opari horren helburua. Bestalde, Eguberri Azoka Yanguas y Miranda kalean jarriko dute aurten, eta ez Antoniutti parkean, orain arte egiten zuten bezala.

Erredakzioa / Iruñea

IRUÑEKO Alde Zaharrean urbanizazio-zaharberritze lanak egiten ari dira. Hori dela kausa, Eguberrietako erosketak bertan egitea ez da aurreko urteetan bezain eroso izanen. Ezerosotasun hori arintzeko xedearekin, Alde Zahar Merkatari Elkarteko dendariak Gabonetan zehar zenbait opari egingen dizkiete euren bezeroei.

Lehenik eta behin, Iruñeko Ganbara Abesbatzak bere 50. urteurrena dela eta grabaturiko disko konpaktuaren 45.000 ale oparituko dituzte. Konpaktuak 13 eguberri kanta biltzen ditu bere baitan; besteak beste, *Adeste fideles*, *Noche de paz* eta Felix Mendelsonen eta George F. Handelen kantak.

Disko konpaktuaz landara, dendariak helioz puztutako milaka puxika oparituko dizkiete haurrei. Halaber, urtero bezala merkatari elkarteak argi apaingarriak jarriko ditu Alde Zaharreko karraketan. Orotara 10.000 metro kable eta 20.000 bonbila erabiliko ditu, 32 kale eta plaza apaintzeko.

Ernesto Rego Alde Zahar Mer-



Iruñeko Alde Zaharrean urbanizazio-zaharberritze lanak egiten ari dira.

JOXE LACALLE

Urtero bezala merkatari elkarteak argi apaingarriak jarriko ditu Alde Zaharreko karraketan. Orotara 10.000 metro kable eta 20.000 bonbila erabiliko ditu, 32 kale eta plaza apaintzeko

katari Elkarteko kidearen arabera, «egoera larria da, egiten ari den ahalegina izugarria, eta horrek bezeroen erantzun ona merezi du; izan ere, finean 8.000 lanpostu daude jokoan».

Eguberri Azoka, Yanguas y Mirandan • Orain arte Antoniutti parkean jartzen ohi zuten Eguberri Azoka, Yanguas y Miranda kalean jarriko dute aurten.

San Nicolas, Eguberri eta Elkartelkarteetako saltzaileek abenduaren bederatzian muntatuko dituzte euren bi karpa erraldoiak, eta ordutik aurrera azoka zabalik izanen da. Karpa handiak 900 metro koadro izanen ditu, eta horretan Eguberri eta San Nicolas elkarteetako 56 saltzaile ariko dira lanean.

Karpa txikiak, berriz, 400 metro koadroko azalera izanen du,

eta horretan Elkar elkarteetako 30 artisauek egiten dute lan. Bi karpetan musika eta argi apaingarriak izanen dira. Horretaz landara, arratsaldero haurrentzako ikuskariak izanen dira. Hori guztia ordaindu ahal izateko, saltzaile bakoitzak azoka hasi aurretik 70.000 pezeta (2.800 libera) ordaindu beharko ditu.

Elkar, Eguberri eta San Nicolas elkarteek Udalarekin egindako negoziazioan gogotik egin behar izan dute lan, azoka jartzeko toki aproposa lortu ahal izateko. Udalak Antoniutti parkea ezin zela erabili esan eta gero. Batek baino gehiago aurten Eguberri Azokarik ez zela izanen uste zuten. Zorionez, azkenean saltzaileak eta Udala akort jarri dira. X

Barañain

Elkartasuna Barañaindik Bosniara

■ *Gobernuz kanpoko erakunde batek abendu osoan egingo den janari bilketa antolatu du Iruñerrian*

Erredakzioa / Iruñea

JANARIA biltzeko kanpaina antolatu du abendurako Bosniarentzako Laguntza gobernuz kanpoko erakundeak. Jakiak Barañaingo Udalaren Eultza etorbideko aretoan bilduko dituzte. Kanpainak Barañain izanen du erdigune, baina Iruñerri osoan egingen dute. Jose Luis Tejero Bosniarako Laguntzako kidearen arabera, «helburua da bereziki ikastetxeetako haurrekin lan egitea, eta horiek mobilizatea». Batetik, jakiak bildu na-

hi dituzte. Bestetik, elkartasuna eta antzeko baloreak ulertarazi nahi dizkiete ikasleei.

Dena dela, kanpaina ez dute ikastetxeetara mugatuko, eta gizartea oro har horretan parte hartzea bultzatzen saiatuko dira. «Ikastetxeekin hitz egiteaz gain, dagoeneko enprekin eta elizekin harremanetan hasi gara, eta estreinako fruituak jaso ditugu jada». Jaso nahi dituzten fruituak honako hauek dira: jakiek dagokienez, olioak, lekaleak, tomateak, kafea, kontserba latak, txokolatea, azukrea, arroza eta

esnea; eta garbiketarako gaiak dagokienez, bizarra egiteko tresnak eta hortzorea. Halaber, arropa, zapatak eta eskolarako materiala lortzea espero dute.

Lortzen den guztia Bosniako errefuxiatu kanpalekuek bidaliko du Bosniarentzako Laguntzarako. Bertan banaketa behar bezala egin dadin, Tejerok azaldu zuenez, Espainiak Bosnian duen enbaxadarekin hitz egin dute. Halaber, Bosnia Merhamet gobernuz kanpoko erakundearekin harremanetan daude. Hain zuzen ere, GKE horrek eman dizkie

gehien behar diren jakien eta garbitasun lehengaien zerrenda. Bestalde, Bosnian bertan beharrik handiena non dagoen azaldu die Bosni Merhametek, eta hain justu horra bidaliko dute bildutako guztia.

Bildutako jakiak eta garbiketarako gaiak familia kutxetan banatuko dituzte. Kutxa bakoitzean familia batek behar duena jarriko da. Bosnia Merhameteko kideek beraiek banatuko dituzte kutxa horiek, beharrik handiena daukaten errefuxiatu kanpalekuek. X

Eugi

Abenduaren 14an xake lehiaketa egingen dute

■ *Nafarroako Pirinioetako Turismo Partzuergoak antolatuta*

Erredakzioa / Iruñea

NAFARROAKO Pirinioetako Turismo Partzuergoak Xake Txapelketa antolatu du Eugin, Antxo Azkarra Xake Taldearekin elkarlanean. Lehiaketa heldu den abenduaren 14an jokatu dute, Eugiko Ostatuan. Lehen sailkatuak 40.000 (1.600 libera) pezeta patrikaratuko ditu, bigarrenak 25.000 (1.000 libera) eta hirugarrenak 15.000 mila (600 libera). Halaber, partzuergoko inguruan bizi diren jokalarien artean sailkapenik hoberena lortzen duenak 5.000 pezeta (200 libera) jasoko ditu. Partehartzaile bakoitzak mila pezeta (40 libera) ordaindu beharko du izena emateko tenorean. Partzuergoak espero du txapelketan orotara 80 jokalarik parte hartzea. Antolatzaileen hitzetan, «inguru honetan ez dira horrelako ekitaldiak maiz izaten, eta ingurua dinamizatzeko baliagarria izatea da helburua». X

Ituren

Ibintzak kultur jardunaldiak antolatu ditu

■ *Sebastian Lizaso eta Andoni Egañarekin bertso afaria egingen dute bihar gauean*

Erredakzioa / Iruñea

IBINTZA kultur taldeak Kultur Jardunaldiak antolatu ditu asteburu honetarako. Egitaraua mardula da oso. Atzo arratsaldean talo-jatea, trikitilariak eta hiesari buruzko solasaldia, eta Patxi Saezen kantaldia izan ziren. Hiesari buruzko hitzaldian Elizondoko Cofes-Haizea erakundeko kide batek parte hartu zuen. Gaur goizeko 11:00etan futbito txapelketa jokatu dute, eta jarraian hamaiketako izanen da. Arratsaldeko 16:30etan mus txapelketa izanen da, eta 19:00etan antzerki emanaldia. Gaueko 23:00etan musika kontzertua izanen da gozagai King Manfredi reggae taldearekin eta Tolosako Marruma rock taldearekin. Bihar zaldie eta pottoken gainean paseatzerik izanen da. Gaueko 21:00etan bertso afaria izanen da Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsoariekin. Azkenik, Etxakit trikiti taldearekin gaupasa izanen da. X

◆ Pedro Miguel Etxenike ◆ EHUko Kimika Fakultateko katedraduna

«Egun zerbait nazionala bada jeneraren kalitatea da, eta hori hezkuntzan oinarritzen da»

Irene Arrizurieta / Donostia

JAIOTZEZ eta izatez nafarra izan arren, Donostian bizi da Etxenike, bertako Kimika Fakultatean irakasten eta ikertzen baitu. Lanpetuta zebilen oso elkarrizketa egunean; hala ere, unibertsitateaz, irakaskuntzaz, euskaraz eta politikaz berrikeretan aritzeko beta hartu zuen. Bere lanak ezezik, beste gai askok ere kezkatzen baitute.

■ **Nafarroako Unibertsitatean Fisika ikasi zenuen eta ikertzen Cambridgen hasi zinen. Nolakoak izan ziren hasierako urte haiek?**


Cambridgen Cavendish Laboratoryn —Fisikako departamentua— hasi nintzen ikertzen. Laboratorio hori fisikaren historiari lotua dago. Bertan aurkitu zen elektroia, energia nuklearraren bidea irekitzen duen neutroia, ADNren kode genetikoak; oso toki ona zen eta orotzapean bikainak ditut. Han egin nuen doktoretza, eta hamar urte pasatu eta gero irakasle bezala joan nintzen. Guztia kontuan harturik, Cambridgen sei urte bizi izan naiz.

■ **Hainbeste esperientzia pilatu eta gero, Euskal Herria bueltatu zara eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Kimika Fakultateko Materialen Fisika departamentuan zabilta, sortu zenuen ikertzaile talde batekin. Ikerkuntza Euskadi saria egindako lanaren ordaina da?**

Lehenik pozgarria da, ohore handia delako niretzat. Pozgarria da nire talderako, fakultaterako eta unibertsitateko ere. Horrek errekonozimendua ekartzen dio ez bakarrik niri baizik nire taldeari eta nagoen fakultateari. Sari hau ez dut nire lanaren tontortzat hartzen, baizik eta akulu moduan. Ebakitako bidetik jarraitzeko asmoa dut aurrerantzean ere.

■ **Kanpora joan behar izan duzu ikertzeria. Egun ere kanpora joan behar da ikertzeria edo hemen badago azpiegitura nahikoa?**

Guk kanpora joan behar izan genuen hemen gutxi zegoelako. Baina edozein tokitako jendeak kanpora joan behar izaten du. Nahiz eta etxean ondo egon, oso gauza ona da beste tokitan egiten diren gauzak ikustea. Orain hemengo egoera hobea da. Nik uste dut asko aurreratu dela, baina, noski, ezin daiteke hamabost urtetan egin besteak berrehun urtetan egin dutena. Hutsune asko ditugu eta horiek betetzen eta tradizioa sortzen denbora asko behar dugu. Hala ere, norbaitek esaten badu hemengo azpiegiturari buruz dena txarra dela, ez



Pedro Miguel Etxenikek Donostiako Kimika Fakultatean egiten du lan. JUAN CARLOS RUIZ

niok sinetsiko, lan ona egiteko aukerak badaude. Horrek ez du esan nahi kanpora joan behar ez dugunik, alderantziz baizik. Fisika eta zientzia nazioartekoak dira eta oso garrantzitsua da kanpora joatea, besteen ikuspuntua aurrere azalduz eta besteekin nola egiten dituzten gauzak ikas-teko. Askotan esan dut kostalderara joatekotan hobe dugula euskaldunok Iparraldera begira egon Hegoaldera baino.

■ **Saria jaso zenuen egunean Euskal Herriko saria aurreko egiteko konpetitibitate ekonomiko eta kohesio ekonomiko ezinbestekoak dituela aipatu zenuen, eta horrek zientzia eta teknologiarekiko arreta berezia eskatzen duela. Zertan gauzatzen da arreta berezi hori?**

Nik hori esan nuen testuinguru batean. Beti esaten dut euskaldunok Euskal Herria izaten jarraitu nahi badugu bi gauza ezinbestekoak zaizkigula: alde batek, herri izaten jarraitzea. Horrek esan nahi du konpetitibitate ekonomika beharrezkoa dela, baina hori ez da nahikoa kohesio soziala ere behar delako. Gaurko ekonomia globala da eta gu gauden egoeran gure konpetitibitatea bakarrik ezagutzen eta berrikuntzan oinarritu daiteke. Horretarako ezinbestekoa zaigu be-

«Saria akulutzat hartzen dut, eta ez nire lanaren tontortzat. Pozgarria da, eta ohore bat, baina ebakitako bidetik jarraitzeko asmoa dut»

«Euskarak baloratua izan behar du, baina ez jakintza eza berdintzeko gainbaloratua. Bidea irakasle euskaldunak hoberenetakoak izatea da, eta aukeratzaren direnak onak direlako aukeratuak izatea, eta ez euskaldunak direlako»

«Unibertsitatean kriterio uniformistak erabiltzen dira. Diskriminaziorik ez egitean diskriminazioa egiten da. Ezberdintasunak bultzatu eta onartu behar dira, baina lanean oinarritutakoak»

rrikuntza etengabe honi janaria ematen dion zientzia eta teknologia. Eta, bestetik, herri izaten jarraitzea ez da nahikoa, gutako askok eta askok Euskal Herria izaten jarraitu nahi dugu. Horrek esan nahi du euskaraz normalki bizi den herria izatea. Horregatik oso garrantzitsua da zientzia eta teknologia eta euskaraz uztartzea. Ez ikerketako lanak argitaratzeko, baizik eta eguneroko lanerako.

■ **Beraz, zientziak eta teknologiak arreta berezia behar dute?** Zientziatik eta teknologiatik sortuko dira berrikuntzarako beharrezkoak zaizkigun ideiak, herri aurreratu batez ere, neurri handi batean ekonomia ezagutzen oinarritzen delako. Egin beharrekia da unibertsitate ondo zaindu, irakasle onak aukeratu, behar izanez gero kanpoko ikertzaile onak ekarri eta azpiegitura onak sortu.

■ **Unibertsitateari arreta berezia eskaini behar zaioela diozuenen, zer esan nahi duzu?** Irakasleak aukeratzeko metodo onak eduki behar dira. Ongi lan egiten duen jendea hartu behar da. Orain unibertsitatean kriterio sindikalak erabiltzen dira, guztiak berdinak, hau da, kafe gutzintzat, eta hori txarra da, baino bereziki txarra zientziarako. Zientzian ez dago guzti-tzatko

kaferik. Askotan kriterio uniformistak erabiltzen dira eta diskriminaziorik ez dela egin behar esaten da. Baina hori ez egitean diskriminazio handia egiten da batez ere ongi prestatua dagoen jende gaztearekin. Askotan esan dut unibertsitatean ez dagoela diskriminaziorik eza baino diskriminazio handiagorik. Diskriminazioa egin behar da ez sortzerik egiteko edo diruagatik, baizik eta lanagatik. Ezberdintasunak onartu eta bultzatu behar dira, baina lanean oinarritutakoak.

■ **Esaten da zientziak eta teknologiak beste edozein diziplinaren baino askoz botere handiagoa jartzen dutela gizakiaren eskuetan. Hau aintzat hartuz ematen zaio duen garrantzia?**

Ez dut uste. Garrantzia ematen zaio baino ez behar duena, azpiegiturak oso garrantzitsuak dira eta hezkuntza bera ere bai, eta ez zaio behar adina garrantzi ematen. Gaurko egunean zerbait nazionala bada jendearen kalitatea da, eta beste gauza guztiak alde batetik bestera eraman daitezke. Eta hori hezkuntzan oinarritzen da. Askotan hitz egiten da horretaz, eta hitz egiten dutenak bat datoz, baina gero praktikan aurrerantzean begiratu besterik ez dago. Eta ez bakarrik aurrerantzean, baizik eta unibertsitatean bertan irakasleak nola aukera-

s o s l a i a

Gizon nekaezina

IZABAN jaio zen Pedro Miguel Etxenike 1950ean. Geroztik, bihotza Erronkariko herrian badu ere, lanagatik harat eta honat ibili da. Pilatu duen jakintza guztia jasotzeko ez da egonean gelditu. Batxilergoa Izaban eta Lekarozen egin eta gero, Nafarroako Unibertsitatean Fisika ikasketak egin zituen. Ikertzaile lanetan Cambridgen hasi zen. Bertan eman zituen lehen urratsak John Pendryk gidaturik, fisika teorikoa ikertzen. Doktoretza ondorengo lehen urteak Oak Ridgen (EEBB) egin zituen, eta ondoren Europan itzuli zen; Suediara eta Danimarkara lehenik, eta Bartzelonara azkenik. Katalunian Pedro Paskual irakaslearekin aritu zen elkarlanean. Baina 1980. urtean Bartzelona utzi eta ikerkuntzatik politikarako jauzia eman zuen. 29 urte bakarrik zituela Jaurirantzian sartu zen Hezkuntza sailburu gisa Garaikoetxearen gobernuan. Lau urte egin ondoren, Cambridgera itzuli zen. Bi urteko egonaldia ostean, EHUko Kimika Fakultateko Materialen Fisika departamentuan sartu zen. Egun, bertan jarraitzen du lanean, eta etorkizunean ere bertan jarraitzeko asmoa du.



Pedro Miguel Etxenikek Ikerkuntzarako Euskadi saria jaso zuen Joan den azaroaren 22an Donostian, materialen fisikan egindako lanagatik. JUAN CARLOS RUIZ

tzen diren. Endogamia handia dago. Hein handi batean gure unibertsitate publikoa oso pribatua bihurtu da departamentu askotan.

■ **Baina Euskal Herriak bizi duen erakunde zatiketa aintzat harturik, azpiegitura hori sortzea zaila da.**

Bai, noski. Hala ere, nazio bat izanda gero beldurra daukat horrelako gauzetan kale ez ote dugun egingo. Oso demagogia handia enizuten dut batez ere nazio izatearen alde dagoen asko eta askoren artean. Zoritxarrez, horiek ez diet sumatzen nik kalitateari buruz daukadan kezka.

■ **Demagogia diozuenen, zertaz ari zara?**

Demagogiaz ari naizenean norbaitek unibertsitatean sartzen bada lanpostu hori bizi osorako dela diote. Egoera idealean horrela izango litzateke, baina ondo prestatutako hainbeste jende kanpoan lanik gabe ikusi eta gero, ez dut onartzen hori. Eta honen aurka norbaitek egon behar balu, euskaldunak izan beharko luke. Unibertsitatean jende asko sartu da eta gelditu da, eta ez da gure unibertsitatearen onerako, baizik eta oztopoak jartzeko, zeren eta

tokirik ez diete uzten hobeto prestatuak daudenei. Ez da aukerarik sortzen, nik nahi nukeen neurrian behintzat ez.

■ **Unibertsitateaz landa, enpresa pribatuak ere izanen du zeresanik horretan, ezta?**

Bai, munduari begiratzen badugu enpresa pribatuak mugitzen dute ikerketa, baina hemen oso tradizio gutxi da. Oso herri txikia gara, eta hemengo enpresak oso txikiak dira. Oso zaila da, baina hau Europa osoak duen arazoa da. Adibidez, EEBBetako eta Japoniako enpresetan mila langilek sei aritzen dira ikerkuntzan eta garapenean, eta Europar, aldiz, bi. Datu hori oso kezagarria da. Zubiak egin behar dira enpresa eta unibertsitatearen artean. Bide horiek onuragarriak izateko bakoitzak ongi egin behar du bere lana gero beste aldera joateko, alde batean sei eta bestean bi ez da berdina.

■ **EHUko Kimika Fakultatean ikertzaile taldea sortu duzu. Zer izan da esperientzia hau?**

Oso ona izan da eta oso jende ona dago. Munduko kongresu ospetsuetan gabilta hitzaldiak ematen. Donostiako taldeak izena badu eta jardunaldi askotan

gure iritzia oso aintzat hartzen da.

■ **Beraz, ez zegoen harrobia egin duzula esan daiteke?**

Harrobi handi bat, nire taldeak eta beste batzuk ere bai. Hemen fakultatean badaude talde batzuk munduko matla dutenak eta Nafarroako Unibertsitatean ere bai. Ez gara harrobi bat, asko baino. Izugarri hobetu da azken hamabost urteotan, eta hein handi batean izan da erakundeei eta enpresa pribatuari esker. Guk Iberdrolaren laguntza handia izan dugu, eta ez halentzat lan egiteko, baizik eta laguntza izan dugu askatasun osoz. Haiek pentsatu izan dute, eta arrazoi osoz, enpresa konpetitiboa izateko inguruneak ere konpetitiboa izan behar duela. Giro hori sortzen eta landare hori lantzen lanean aritzea ona dela uste izan dute.

■ **1980. urtean Bartzelonako Unibertsitate Zentralea utzi eta Jaurirantzian sartu zinen, Carlos Garaikoetxearen gobernuan Hezkuntza eta Kultura sailburua izateko. Zergatik egin zenuen ikerketatik politikarako jauzia?**

Garaikoetxeak eskatu zidalako. Momentu hartan nire neurria

«Orain hemengo egoera hobea da. Nik uste dut asko aurreratu dela, baina, noski, ezin daiteke hamabost urtetan egin besteak berrehun urtetan egin dutena. Hutsune asko ditugu eta horiek betetzen eta tradizioa sortzen denbora asko behar dugu»

«Gaurko ekonomia globala da eta gu gauden egoeran gure konpetitibitatea bakarrik ezagutzen eta berrikuntzan oinarritu daiteke»

baino askoz gehiago zela iruditzen zitzaidan arren onartu nuen. Espainiako gobernuoak iruditzen zitzaidan gu baino askoz gehiago zirela. Gero, denbora pasa ahala eta haiekin eztabaidatu eta gero, ikusi dut ez dela hainbesteko, urrutitik hartutako inpresioa hurbiletik desagertzen dela. Lehenengo gobernuan jende ona egon zen. Taldeak oso kalitate profesional eta pertsonal ona zuten eta orotzapean onak ditut. Gogorra izan zen niretzat lan asko nuelako. Azken urtean, gainera, Hezkuntza eta Kultura kontseilari eta bozeramalle izan nintzen.

■ **Gure herriak Euskal Herria izateko euskarak bizitzaren arlo guztietan egon behar duela diozu. Unibertsitateak eta erakundeek oro har ez ote du hori ahaztu?**

Oraindik asko dago egiteko, baina beste erakundeekin konparatzen baduzu behar bada unibertsitatean izugarriko esfortza egiten ari da euskararen alde. Esate baterako, gure taldean irakasle hoberenetakoen artean pisu handia dute euskaldunak. Nik uste dut aukera guztiak izan behar liratekeela euskaraz sartzeko, baina horrek ez du esan nahi norbaitek euskaraz aukera bezala hartzen badu ikasgai guztiak euskaraz egin behar dituenik. Euskaraz hutsune izateagatik nik ez nuke hartuko materia bat. Batean guztia euskaraz eta beste dena gaztelania, hori zatiketa linguistikoa da eta momentu honetan ez da ona. Unibertsitatearen zatiketa linguistikoa ez du ekarriko kalitatea. Euskarak baloratua izan behar du, baina ez jakintza eza berdintzeko gainbaloratua. Bidea irakasle euskaldunak hoberenetakoak izatea da eta aukeratzaren direnean onak direlako aukeratzeta, eta ez euskaldunak direlako.

■ **Oraindik ere Izabako etxera joaten zara udaro mendian ibiltzeria eta herriko tabernan kafeetan jokatzeria?**

Bai, abuztu osoa Izaban pasatzen dut. Beti ibili izan naiz Izaban herriko tabernan tutean bertako zaharrek, eta mendira ere joaten naiz. Oso bizitza normala egiten dut. x



Ikertzeria kanpora joatearen aldeko irudia Etxenike, «beste tokitan egiten diren gauzak ikustera». JUAN CARLOS RUIZ

Irene Arrizurieta

Xanti Begiristain


Nazioarteko Egunak

■ Nik egia erran ez dakit noiz hasi ziren ospatzen munduan *Nazioarteko Egunak*, baina kontua da gero eta gehiago daudela, gero eta egun gehiago sortzen direla. Hau da, gaur egun, gutxitik gutxira agertzen da Nazioarteko Egun berri bat. Eta urrutira joan gabe gogorarazi nahi dut, errate baterako, hil honetan bertan ospatu direla abenduaren batean hiesaren aurkako eguna, abenduaren hiruan elbarrien aldeko eguna, eta abar. Pentsatzen dut, martxa honetan, beharbada, urte gutxiren buruan egutegia motz geldituko zaigula. Orduan ez dakit zer egin beharko dugun, muga jarri eta Nazioarteko Egun gehiago ez aukeratu, edo egun jakin batzuetan Nazioarteko Egun bat baino gehiago ospatu, edota urte batean bai eta hurrengoan ez, edo auskalo. Denborak eta irudimenak esango dute zer egin behar den.

Badakit topiko asko dagoela eta sarritan errepikatzen direla ideia berdintsuak, konparaziora, «egun bakar bat ez dela aski», «urte osoko egun gutzietan oroitutako behar dugula arazo horietaz eta

jardunaldiari. Batez ere zentratuko naiz gehiago gutxitu fisiko eta mugikortasun murrizteko pertsonengan. Hasteko, hemen jarriko ditut aurreko egunetan erabili diren datu batzuk. Ez guztiak; banaka batzuk baino ez, ideia orokorrago bat izateko. Hona hemen: mundu osoan, gutxienez 340 milioi gutxitu fisiko omen daude. Europan bertan % 10 pertsona omen dira elbarri, batzuk jaiotzetikoak, beste batzuk poliometilitisarengatik, edota droga, alkohola, istripuak, gerrak, minak, eta abararengatik.

Baina pertsona horien guztien beste arazo larri bat lanarena da. Hara, pertsona gutxitu fisikoak ez diren artean % 20-24ko langabezia baldin bada, elbarrien artean, ordea, % 70-74koa da, batez beste. Zerbakiak, beraiek bakarrik mintzatzeko dira, ez dago gehiago esan beharrik. Lege ezagun baten arabera, 50 langile edo gehiago dituzten enpresa publiko guztiek kontratatu beharko lituzkete % 3 langile gutxitu fisiko, eta enpresa pribatuek % 2 baldintza beretan. Lege hau oso



beroiek konpontzeko lan egin», eta abar. Bai, egia da. Horrela balitz, askoz ere hobe, baina aintzatzat hartu behar dugu pertsonok oso mugatuak garela eta ez gaitzkeela denera iritsi, eta askoz gutxiago oraindik denera iritsi, lan egin eta arazo guztiak konpondu, horregatik, norberak ikusi beharko du zer aukera dezakeen bere trebetasunen arabera, eta zertan lagundu ahal duen arazo horiek guztiak pixkanaka-pixkanaka aterabideratzen joateko.

Dirudienek, eta zoritxarrez, momentuz behinik behin, Nazioarteko Egun horiek ospatzea beharrezkoa da, edo agian ezinbestekoa. Afera da asko ospatzen direla, eta ez dut uste aferra hutsez ospatzen direla. Ziur aski arazo gehiago izango dira, baina topikoak topiko, berriz heldu nahi diot pixka batez abenduaren hiruko Nazioarteko Egunari, hots, gutxitu fisiko eta sentsorialen aldeko

gutxitan betetzen da, baina hala ere, betetzen ez duten enpresei ez zaie zigorrik jartzen; beste nazio batzuetan, horrelako kasuetan, enpresa horiek ordaindu behar izaten omen dute zerga berezi bat, hemen berriz ez.

Gizarte honek joera du gutxitu fisiko gehienak lantoki jakin batzuetan pilatzeko, eta *ghettoak* sortzeko. Erroka horretan datza, hau da, ahalik eta lanposturik gehien sortu behar da gutxitu fisikoentzat, baina modu normalizatu batez, ez denak pilaturik, eta horretaz gain, ez ezkutatuak, baizik, eta baita jendearen aurrekoak (mostradoreetan, eta abar).

Oraindik oztopo mental asko dago. Horiek dira okerrenak. Beti hobesten dira pertsona politikak, ederrak, akatsik gabek eta abar.

Argi dago, Nazioarteko Egun asko ezagutu beharko dugu. ■

Klasiko bitxi, arrotz klasiko

Joxemiel Bidador

Ebangelista Iberokoa

■ Gaurkoan aukeran hartu izan dugun gizona ezta niholaz ere euskal izkiriatzaila naroa, ez eta euskal idazlerik ere tamalez. Tamalez. Alabainan euskaraz ez idazteagatik ere gurean txokotoa badiogu eskeini intereskoa delakoan. Erramun Goikoetxea Orokieta Oltzako Zendearen Ibero hirian sortu zen 1873. urteko abuztuaren 31an. Arras gazte zela hamar urterekin kaputxinotarrenean sartu zen Santandereko Montehanon. Edozein modutan ere Euskal Herrietik etzen gehixegi aldendu bizi lemeziko harat-honarat haletan eta esan behar da Ondarribin nahiz Bilbon usu aritu zela. Bizkaiko hiriburuan profesio txikia egin zuen eta handik Baztan aldeko Lekarotzera abiatu zen luzarorako. Ikasketa nagusiak nahiz profesioa hartan berean bete zituen nahiz apeztea Okzitaniako Tolosan egin zuen 1897.eko irailaren 9an. 1900.ean Iruñera joan zen elokuentzia sakratua eta zuzenbide kanonikoa irakasteko mandatuarekin. Misiolari bezala ere ihardun zuen Iruñerriko herrietan zein Izarbe ibarrean. Esan beharra dago mende hasmentan hartan erdara nagusitzen hasia bazen ere, oraino euskaldunak bazirela merindadeko behetiko lur haletan: Garestik hasita Olkotzeraino, edota Adiozetik Senosiaindano. Ibero re zer esanik ez, euskalduna zen, hagituz moteldua izan arren, eta gure Erramun ere halakoa zatekeen, ezertxo ere euskaraz tajaturik utzi ez zigun arren. Halarik ere, erdal ekoizpenari ahalez euskaldundu nahian ideo, beti ere Euskal Herriko eskubide politikoak mihi puntuan zeramatzen, erlijio katolikoaren zetabekik xeheki galbaheturik balekibale. Honek arazo larri gorriak ekarriko lizkioke. Iturritzeagako San Pedroko lekaidetxean zegoela, eta Aralarko aingerua Iruñeratu zelako aitazkipean, eliz nagusian beharrek mezetetan ohizko predikua ogutzi zuen Iberokoa 1902. urtean. Hain zen prediku aberkoia ezen auziperatu behar izan zutela ezkerrekoen salakuntza suminaren ondorioz. Edozein modutan ere, zioa etzen Nafarrieriako eliz nagusiaren lau horma gotikoen barruan gelditu, haizatu barik, eta ber urtean argitaratu zituen esandako sermoia *Estafeta* karrikako 31 zenbakian zegoen Erize eta Garziaren moldiztegitik: *Sermón predicado en la catedral de Pamplona el día 8 de abril de 1902 fiesta de la dedicación de aquella santa iglesia y ante la imagen de San Miguel de Excelsis. Prediku hasiera nahikoa dukegu jakiteko nondik nora zihoan gure fraidea: Cuanto más lo pienso, más me alegro y me glorio de pertenecer al hidalgo pueblo vasco. Pueblo más honrado, más noble, más valiente, más cristiano no le ha habido, no le hay, y no lo habrá jamás en toda redondez del globo.*

Iruñekoa agitu ostean, Lizarrara joanarazi zuten, bertako komentuko buru gainera, baina ordenarako ekar zekioken arriskua behar bezalako alderaturik etzegoela oharturik, hiru urteren buruan Teruel aldeko Hija aldera bidali zuten, bertan hil zela 1909.eko irailaren batean. Bizkitartean omen handiena bereganatu zion idazkia agertarazi zuen Ibero ezizenaren azpian, *Ami vasco* izenburuko liburua alegia. Bilboko Artetxerenean 1906. urtean imprimaturikoa hots. Gernikako arbolaz hornitu azala duen hau Arana Goiriari eskeini zion doike: *mártir de jaungoikoa y de Euzkadi. Itau ihardespen modura eginiko liburuxka honek dozena bat kapitulu dakartzkigu zein baino zein interesgarriago: nazioa; estadia; nazionalismoa; aberria; aberriarekiko betebeharrak —A trabajar sin descanso por la conservación o restauración de la raza, lengua, leyes, instituciones políticas, costumbres, carácter, tradiciones, artes, territorio y demás elementos constitutivos de la patria o nacionalidad—; arrazaren aldetiko euskal nazionalismoa; historiaren aldetiko euskal nazionalismoa; Euzko Alderdi Jeltzalea; alderdi foruzaleak —¿Qué caso hace el nacionalismo de las exclamaciones y gritos de los fueristas? El caso que hace la luna de los ladridos de los perros—; alderdi karlista; ondorioak. *Ami hitza Ormaetxeak sortu agakaren hasmentan eta bukaerako hizkiez osotu anagrama litzateke, eta hortik, katezismo edota eskuliburu baten ordaina genuke Iberokoaren lana. Lan honi ihardespen gogorra eman zion Sola izenekoak beste liburu baten bitartez: *Clericalismo y separatismo vasco: comentario del folleto vasco titulado Ami vasco* Bilbon ere ageri zena, Muller eta Zabaletarenen, 1906. urtean. Iberokoarenean agertzen diren puntu guztiak, banan bana segitu zituen, ikuspegi espainarkoi argi eta garbi batetik, euskal nazionalismoa gorki deitoratuz. Edozein modutan ere, nazionalismoarekin batera, erlijioak duen garrantzia ere deuseztatzen ahailegindu zen: *El único fin del nacionalismo vasco es el del restablecimiento del poder eclesiástico, el bizkaitarrismo es hijo del clericalismo. La nación vasca, la patria vasca, el idioma vasco que tanto se ponderan, escupiendo y pisoteando a la nación española, son puro objeto, supeditado a la voluntad del papa blanco o negro.* ■**



Nafarroako Taldekako Txapelketako maila nagusiko zazpigarren jardunaldiko partida, 1996ko azaroaren 23an jokatu.

Pablo del Rio (Iruñeko Runa), 2.130 ELOkoa — **Oskar Lazkoz** (Atarrabiako Paz de Ziganda), 1.845 ELOkoa.

1.d4, Zf6; 2.Zc3, g6; 3.e4, d6; 4.Ae3, Ag7; 5.Dd2, Zg4; 6.Ag5, h6; 7.Ah4, 0-0; 8.0-0-0, b6; 9.f3, Zf6; 10. g4, c5.


Ikus koadroa. Beltzen mugimenduak ez dira zehatzak izan. Azkenaren ondorioz peoi bat galduko dute.

11.c5, b-c5; 12. Af6, Af6; 13.Dh6, Da5; 14. Ac4.

Beltzen kontraerasoari emandako erantzun egokia.

14... Ac3; 15.c3, Dc3; 16.Dg6 xa, Eh8; 17.Dh6 xa, Eg8; 18.Dg6 xa, Eh8; 19.Af7, Dal xa; 20. Ed2, Dd4 xa; 21. Ee1, De3 xa; 22. Ze2, Aa6; 23. c4, Ac4; 24. Ac4, Gf3; 25. De8 xa.

“e7” eta “d6”ko peoiak erortzear zedenez (eta partida hankaz gora), beltzek etsi egin zuten. Azkarregi sartu zuten hanka.





Arturo Kampion izan zen elkartean bultzatzaileetako bat. Argazkian, Carmelo Etxegarai, Txomin Agirre, J. Urkixo, Serapio Mujika eta J.C. Guerrarekin.

AUNAMENDI

Abertzaletasunaren hitzaurrea

1877an sortu zen Asociación Euskara-ri buruz jardunaldiak antolatu ditu Eusko Ikaskuntzak

Alberto Barandiaran / Iruñea

ARABAN Femin Herranek *Revista de las Provincias Vascas*, Gipuzkoan Jose Manterolak *Euskal-Erria*, Bizkaian Vicente Aranak *Revista de Vizcaya* edo Parisen *La Revue des bas-pyrénéés et des Landes* sortu baino lehen, Nafarroan berpiztu zen geroago abertzaletasuna emango zuen mugimendu interesgarria. Euskararen gainbeherakadak kezkataturik, 1860ko hamarkadan, bi gerra karlisten artean, hasi ziren lehen harremanak euskal kultura bultzatzeko taldea osatzekoak, eta Nafarroako Diputaziok Hego Euskal Herriko lau probintziak hartuko lituzkeen euskal unibertsitatea edo lau lurralde-tarako entzutegia proposatu zituen. Bigarren gerra karlistak asmo guztiak zapuztu zituen, ondorengo garaia oso latza izan zelako. Giro horren pean 1877an osatu zen Nafarroan Asociación Euskara, «euskal nafar-hizkuntza, literatura eta historia gorde eta zabaltzeko, bertako legeria aztertzeko eta herrialdearen ongizate moral eta materiala faboratzen duen guztia bideratzeko». Beren lana soilik kulturaren alorrean garatzen zutela, euskaroko haiek beren iritziz euskal-nafar nortasunaren baloreak irudikatzen zituzten ezaugarriak begiratu nahi zituzten, eta abertzaletasun kulturala dei daitekeen mugimendua sortu zuten, foruen berres-

Abertzaletasunaren aitzindariak izan ziren Nafarroako Asociación Euskararen desagerpenaren ehungarren urtea bete dela-eta jardunaldiak antolatu ditu heldu den asterako Eusko Ikaskuntzak Iruñean. Lau egunetan «euskal-nafar hizkuntza, literatura eta historia gorde eta zabaltzeko» sortu zen talde honen lana —«aurrenazonalismo kulturala» Antonio Elorzak deitu bezala— aztertuko da.

kurapena gainerako helburuak lortzeko bermetzat hartuz.

Foruak ziren garai hartan euskaltasuna lotzen zuena, eta hori galduz gero dena galduko zela ikusten zuten askok. Hala ere, elkartek hasieratik markatu nahi izan zuen bere izaera apolitikoa, garaiko zentsura eta presio politikoa saihestearren, eta sei urtez (1878-1883) argitaratu zuen *Euskara* aldizkarian gai kulturalak jorratu ziren soil-soilik. Elkartean planteamendu politikoak, ordea *El Arga* (1879-1881) eta *Lau-Buru*

(1883-1886) aldizkarietan jorratu ziren.

Euskara aldizkarian dago jasoa, hain zuzen ere, talde honek utzitako ondare garrantzitsua. Testu gehienak erdaraz argitaratu ziren, tartean poema askoren itzulpen ugari, baina historiak ere toki aukeratua du aldizkarian. Artea, zuzenbidea, euskal jaiak buruz artikulak... Zenbait kolaboratzaile ezintutetsu —Bonaparte Printzea, Ortiz de Zarate, Serafin Olabe— tarteka orriotara azaldu baziren ere, lan gehiena Kampion eta Iturralde y Suitek egin zuten, eta amaieran kezu ziren lagunengandik jasotako laguntza urriaz, azken zenbakiak ia osoak egin behar izan zituztelako biek.

Antoine D'Abbadiek 1853an Urruñan hasitako Euskal Besten ondok etorri ziren Lore-Jokoak Nafarroara, Elizondora aurretik (1879) eta Berara (1889) ondok, eta elkartek izan zuen paper garrantzitsua antolakuntzan. Elizondoko eguneko literatur lehiaketan parte hartu zuen Felipe Arrese Beitia poeta bizkaitarrak *Ama Euskeriari azken agurrak* lanarekin eta izugarritzko arrakasta izan zuen.

Arrese Beitia, Iparragirre eta Navarro Villoslada • Lola Valverde Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea eta jardunaldien antolatzaileak azaldu duenez, hiru pertsonai oso garrantzitsuak izan ziren elkarteko jendearentzat: Arrese Beitia, Iparragirre eta Navarro Villoslada. «Navarro Villoslada» esan du Valverdek, «integrata eta neokatoliko izugarria zen, baina euskarok ikusi zuten bere *Amaya o los vascos...* liburu euskal liburu nazionala balitz bezala, euskal Biblia. Iparragirre ere

estimua handia zioten, eta Argentinatik etorri zenetik dirulaguntzak eskatu zituzten berarentzat: foruen sinboloa zen beraientzat».

Heldu den astelehenean hasiko diren jardunaldi hauen helburua da ezagutzera ematea elkartek eginiko lana, batez ere aldizkarian bildutakoa. «Oso jende gutxi ezagutzen du aldizkaria» dio Valverdek, «bakarrik zabaltzen zelako bazkideen artean, eta bazkide izatea ere ez zelako oso erraza izan. Nik batzuetan kontsultatu izan ditut zenbait artikulak jakin gabe hemen idatzi zirela jatorrian». Hori dela-eta, Eusko Ikaskuntzak *Euskara* aldizkariaren ale guztiak argitaratu ditu.

Lehen hitzaldia astelehenean izango da, esan bezala, eta Angel Garcia-Sanz Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak elkartea osatu zuten gizonen buruzko datuak emango ditu bertan. Asteartean, hilak 10, Jose Maria Jimeno Juriok euskararen atzerakadaren aurrean elkartek izan zuen jarrera jorrotuko du eta asteazkenean Antonio Elorzak, Madrilgo Unibertsitate Konplutenseko irakasleak, *Abertzaletasunaren aurreko abertzaletasun kulturala* izeneko hitzaldia emango du. Ostegunean Gregorio Monreal Eusko Ikaskuntzako lehendakariak erregimen foralari buruz hitz egingo du eta aldizkariaren edizio faksimilaren aurkezpena egingo da. X

Euskaroko haiek beren iritziz euskal-nafar nortasunaren baloreak irudikatzen zituzten ezaugarriak begiratu nahi zituzten, eta abertzaletasun kulturala dei daitekeen mugimendua sortu zuten

Lola Valverdek dioenez, «oso jende gutxi ezagutzen du *Euskara* aldizkaria, bakarrik zabaltzen zelako bazkideen artean, eta bazkide izatea ez zelako oso erraza»

◆ Javier Rodrigo ◆ Idazlea

«Intimismoa intrigaz lantzen dut»

Agoizko Bilaketa kultur taldeak Francisco Indurain idazle berrientzako saria eman berri dio Javier Rodrigori, 'El ilusionista' eleberria dela eta. Horren aurretik, idazle iruindarrak Nafarroako Gobernu saria jaso zuen estreinako liburu horri esker. Idatzi dituen lehen berrehun orrialdeek etekin ezin hobea eman diote Rodrigori.

Juan Kruz Lakasta / Iruñea

EFE agentziako egoltza, Javier Rodrigoren lantokia, Estafeta kalean dago. Baita Fitero taberna ere. Bertan egin genuen topo. Fiteron munduko pintxorik hobeenak —eta seguru asko, halaber, koipetsuenak— egiten dituzte: piperra, arrautza, urdaiazpikoa eta gazta... Horien guztien parean, literaturaren inguruan mintzatu zen idazle-kazetari iruindarra. Ez ziren bereak, inondik inora ere, adierazpen koipetsuak izan.

■ **Nola ikasten da idazten, idatziz ala irakurriz?**

Idatziz eta irakurriz. Idazteko kontatzeko zerbait eduki behar duzu. Horretaz gain, jatorriz nolabaiteko idazteko gaitasuna izan behar duzu. Halaber, ondo idazteko asko irakurri behar duzula uste dut. Ez dut uste irakurtzen ez duen idazlerik egon daitekeenik. Nik asko irakurtzen dut. Idazleentzat ezezik, jende guztientzat ere irakurtzea oso garrantzitsua da.

■ **Zer irakurtzen duzu?**

Garai batean German Hesse asko irakurri nuen. Gero itzulpenetan asko gaitzen dela jabetu nintzen, eta Latinoamerikako literatura irakurtzen hasi nintzen: García Marquez, Vargas Llosa, Borges, Ernesto Sabato. Maila goreneko literatura da. Hori irakurritik idazteak lotsa ematen dizu. Umbral gustukoa dut, Gala, Cela... Ezin duzu guztia irakurri. Soledad Puertolas Bilaketa sariaren banaketan izan zen, eta berak idatzitako liburuen artean gehien gustatzen zitzaizkidan zein zen galdetu zidan. Bakar bat ere ez dudala irakurri erantzun behar izan nion.

■ **Zer dela-eta hasi zinen zu idazten?**

Kasualidadez izan zen. Neure buruari ez nion esan «tira, gauza serioak idazten hasiko naiz». Kazetari lana, agentzian, nahiko monotonoa da. Ez daukazu sormena lantzeko aukera handirik. Agian egunkari edota irrati batean baduzu horretarako beta. Agentzietan ez, gauzak labor eta zehaztasun osoz idatzi behar dituzu. Askatasun handiagoz idazteko gogoia baduzu, beharra sentitzen duzu. Erlaxatzeko modu bat da. Musika lasaia jartzen duzu, argi lasaia, zigarrotxoak pizten duzu, eta idazten hasten zara. Entreenigarria ez balitz ez nuke egiten. Modu horretan gauza laborra egiten hasi nintzen, baina emeki-emeki, kasik nahi gabe, argumentua luzatzen joan nintzen. Azkenean berrehun orrialdeko liburua idatzi nuen.

■ **Nola bururatu zitzaizun liburu hori lehiaketa batera aurkeztea?**

Liburua idaztea hasiera batean denborapasa izan zen. Hasieran senitartekoei eta lagunei eman nien. Gero, liburua idatzirik zegoela, eta horrekin zer edo zer egin behar nuela pentsatu nuen. Nafarroako Gobernuaren deialdia ikusi nuen, eta aurkeztea erabaki nuen. Zortea izan nuen. Irabazi egin nuen, eta Nafarroako Gobernuak liburua argitaratu zidan.

■ **Eta irabazi eta gero zer?**

Irabazi nuenean zera pentsatu nuen: «Agian, batek daki, zerbait egin dezaket hemen». Inondik ere ez duzu pentsatzen jada izen handiko idazlea zarela. Gero, gainera, Agoizko Bilaketa sariak banatu zituztenean egile berrientzako Francisco Indurain saria eman zidaten. Hori ezusteko handia



Javier Rodrigo, idazle lanetan aritzea gustuko duen kazetaria.

JOXE LACALLE

izan zen, nik ez nuen-eta liburua sari horretara aurkeztu. Haiek argitaratu diren lanen artean gehien gustatzen zaiena hautatzen dute, eta nirea aukeratu zuten. Bat-batean, neure bizitza osoan berrehun orrialde besterik ez dudala idatzi, bi sari irabazi dudala ikusi dut. Orain beste liburu bat idazten ari naiz. Idazle ezezagunaren gaitzak jota, seguru asko berriro ere lehiaketa batera aurkeztu beharko dut, argitaletxeek, egile ezezaguna bazara, autoprodukzioa besterik ez dizute eskaintzen eta. Ez badut deus

lortzen, ez da ezer gertatuko. Ni, finean, kazetaria naiz, denborapasa idazle lanetan aritzen den kazetaria.

■ **Ez diezu zure orrialde horiei etekin makala atera. Zer idatzi duzu, bada, horietan?**

Bai, etekina ez da nolana hinkoa izan. Motibazio handia izan da. Mutiko bat herri batean bizi da, amarekin eta anaia txikiarekin batera. Aita aspaldian hil zitzaion. Kostaldeko herria da, Kantauri aldekoa, baina Mediterraneo kutsua ere badu: badira apartamentuak eta abar. Herriko

s o s l a i a

Javier Rodrigo duela 29 urte jaiotako iruñesemea da. Nafarroako Unibertsitatean Kazetaritza ikasketak egin eta gero, duela zazpi urte Efe agentzian lanean hasi zen. Kazetaritza landara, «denborapasa» idazle lanetan aritzea gustatzen zailo.

Horrelaxe, «denborapasa» idatzi zuen El ilusionista, estreinako eleberria. Nafarroako Gobernuko egile berrientzako lehiaketara aurkeztu zuen, eta irabazi egin zuen. Agoizko Bilaketa kultur taldeak Francisco Indurain saria eman berri dio lan bereragatik.

Egun bigarren eleberria idazten ari da. Dagoeneko horren hiru laurdenak idatzi ditu. Burutzen duela, alia, argitaratzerik izanen duenentz ez dauka batere argi. Argitaletxeek egile ezezagunari autogaitalpena eskaintzen ohi diete, eta bera ez dago prest malleu bat eskatzeko liburua argitaratu ahal izateko.

jaietan, egun ekaitsu batean, anaia txikia barraketara eramaten du. Haurra Izuaren Gazteluan sartzen da, eta desagertu egiten da. Protagonista anaia txikia bilatzen hasten da, eta aldi berean bere barnean ere bilatzeari ekiten dio. Arazo psikologikoak dauzka. Liburuaren bi irakurketa ezberdin egin daitezke. Batetik, intriga dago, eta, bestetik, intimismoa. Intriga aprobetxatzen dut nire mezuak, nire aburuak sartzeko. Intimismoa intrigaz lantzen dut. Liburu intimista batek ez du zertan liburu aspergarria izan. x

«Idatziz eta irakurriz ikasten da idazten. Ez dut uste irakurtzen ez duen idazlerik egon daitekeenik»

P A N E LUCRÁNDO

ZALDI EROA

LIRIKAZ HONATAGO 39

GAUR: ENEA ZARA ZU

JERMÁN ZARA ANONIMO

ENEA ZARA ZU, ZUREA NAIZ NI: ONDO JAKIN BEHAR DUZU.

GATIBU ZAUDE ENE BIHOTZEAN

GALDU EGIN DA GILTZA, ETA

HEMENTXE EGONGO ZARA BETIRAKO.